

24. atala KALEZ KALE

Jone eta Aritz pasean atera ziren berriz lurretako kaleetan zehar eta han hasi zen Aritz bat-batean:

- *Bi...xen...te ka...pa...na...ga, Bixente Kapanaga! Pertsona izena du kale honek Jone!*
- *Hala da Aritz, Bixente Kapanaga lurretako alkatea izan zen XIX. mendearen bukaeran. Kale honetatik aurreko batean aipatu nizun errepidea pasatzen zen Gaztelatik kostaldera bidean. Bixentek pasabide hau kale bihurtzea bultzatu zuen konponketak eginda. Bera hil eta bi urtera 1916. urtean jarri zioten izen hau kaleari.*
- *Gu Bidebarrieta kalean bizi gara baina – Bota zuen mutikoak hari buruzkoak ere jakin nahian.*
- *40. Hamarkadaraino Bilbotik – Donostiarako bidea Durango barrutik sartzen zen. Orduan bide berria egitea erabaki zuten eta Durangon sartzea ekidin. lurretarrek “Bidebarrije” deitzen zioten bide honi eta azkenean udalak Bidebarrieta izena eman zion.*
- *Durango ekidin zuten bezala lurreta erditik ere pasako ez balitz hobe.*
- *Hori uste dut nik ere Aritz. Askondo kalea Fray Juan Askondo 1705. urtean jaiotako arkitekto beneditarraren omenez izendatu zen baina aurretik “Mañariku” zuen izena kaleak. Maspe kaleak kale horretan zegoen baserri handi baten izena hartu zuen eta Uralde, Bixente Kapanaga kaleko 20. zenbakiko etxearen izena da berez baina polita iruditu zitzaion udalari erreka alboko kalea izendatzeko.*
- *Bai datu bitxiak ezta Jone? – Arreta handiz ari zen entzuten mutila.*

ARIKETA:

- Lagunduko diozu Aritz kale izenen mapa osatzen?
 - *Bai – Esan zuen Jonek irribarrez – Zubiaurre kaleak ere inguru horretan, zubiaren aurrean zauden baserrien izena hartu zuen. Amilburu Musikarien plazak Roman eta Demetrio aita-semeen abizena hartu zuen, hauek lurretako elizako organista izan baitziren urte askoan.*
 - *Dantzari kalea, dantzariengatik da Jone?*
 - *Horrek ez du azalpen askorik behar ez da ala? Gero plaza aldera joanez gero, San Migel plaza, eta Olalde kalea daude. Han Burdinolak izan zirelako hartu zuen kaleak izen hori eta Olaburu burdinolen goi aldean zegoen guneari deitzen zioten. Gaur egun izen hori du han kokatuta dagoen lurretako frontoiak.*
 - *Eta plaza inguratzen duten etxe berri horiek Jone?*
 - *Hori Elixalde kalea da eta nabari da Eliza inguratzen delako dela izen hori.*
 - *Zenbat izen Jone, ea denak ondo ikasi ditudan.*

